



Ondarea gizarte osoaren ondasuna da eta, horregatik, zaindu eta babestu egin behar dugu, batez ere, gure ondasunik preziatuena, izadia, baldin bada.

Ondare naturala: gizartearen erantzukizuna



DUELA GUTXI, Europako Batzordeak Eskualde Atlantikoko euskal 80 eremu sartu ditu Natura 2000 Sarea deritzon-ean. Baina, zer da Natura 2000 Sarea? 1992an Rio de Janeiron (Brasilen) egin zen Lurrari buruzko Gailurrean hartutako erabaki batzuen zehaztapena da Sarea, eta interes komunitariokotzat hartzen diren habitat eta flora zein fauna espezie guztiak babestea du lehentasunezko helburu. Sareak bi babes-figura darabiltza bereziki: Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuak (HBBE) eta Garrantzi Komunitarioko Lekuak (GKL). Batzuk eta besteak Bereziki Zaintzeko Lekutzat (BZL) hartuko dira, Europako Batzordeak aztertu eta gero.

80 BZL horiek Europako zerrendan sartuta, hauxe da Euskal Herriko eremu babestua:


Lurraldea	azalera (Ha)
Araba	70.006
Bizkaia	17.171
Gipuzkoa	42.201
Nafarroa	88.786
Lapurdi	37.703
Nafarroa Behera	52.800
Zuberoa	28.600
GUZTIRA	337.268,30

GKL-ren kokapena lurraldearen arabera

Araban	19
Bizkaian	11
Gipuzkoan	18
Nafarroan	13
Lapurdin	9
Nafarroa Beherean	6
Zuberoan	4



Garrantzi Komunitarioko EAEko Lekuen mapa.



Hegaztientzako Babes Bereziko EAEko Eremuen mapa.

GKLak Natura Sarean sartzeak leku horiek babesteko konpromisoa dakar Europako instituzioen aldetik, leku berezitzat hartzeko arrazoi izan diren balioak galdu ez daitezzen. Zehazki, Europako Zuzentzaletako batek dioenez, *Garrantzi Komunitarioko Lekuaren osotasun ekologikoari lekuan bertan nahiz beraren inguruan egiten den ezein jarduerak ez diola inola ere erasango bermatu behar da*. Europako Batzordeak zazpi adierazle ekologiko ezarri zituen GKLak zein izan behar ziren zehaztasunez erabakitzeko. Horrez gain, Bruselan, Garrantzi Komunitarioko Leku bakoitzeko kartografia xehatua egin zen. Dena den, instituzioek gure planetako altxorak babesteko ahalegin handiak egiten badituzte ere, ez dugu ahaztu behar guztion ardurara dela geure ingurua ondo zaintzea eta bertako bizi-aniztasuna, guk ez ezik, gure atzetik etorriko diren belaunaldiak ere gozatu ahal izateko babestea.

Aipatutako datuak baloratu ondoren, honako ariketa hauek proposatu ditzakegu:

- Identifikatu zuen lurraldeko GKLak. Talde txikitan antolatuta, egin GKL banari buruzko azterlana: kokalekua, ingurumen-balioak, kontserbazioa eragozten duten arriskuak... Azterlanekin, erakusketa antolatu dezakezue.
- Nahikoa da eremu babestutzat deklaratzeko, natura-guneen lorrindura saihesteko?
- Beste ezer egin beharko genuke gure lurraldeko bizi-aniztasuna babesteko?

Natura 2000 Sareari buruzko informazio gehiago

<http://europa.eu.int/comm/environment/nature/home.htm>
<http://www.ecologistsenaccion.org/accion/espacios/natura1.pdf>
http://www.euskadi.net/biodiversidad/dot_principal_c.htm

Bibliografia

Naturagune paregabeak Euskal Autonomia Erkidegoan. Natura 2000 Sarea. Consultora de Recursos Naturales (Koord.) Biodibertsitatearen Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz, 2003.

